



SARE

ZIGORREN BATUKETA
CÓMPUTO DE PENAS



Zigorren batuketa

Finean, bi estatuen arteko zigorren batuketaz ari garenean, Frantziako kondenak Espainiako gehieneko 30 urteko kondenari behar zaizkiela azaldu nahi dugu. Europak babesten duen legea da, baina Espainiak betetzen ez duena.

2008 urtean, Europak lege berri bat egin zuen, bertan **europar komunitateko estatu ezberdinetako sententziek eragin berbera izan behar dutela** zehazten du. Legea 2008koa izan arren, Espainiak ez zuen 2014rarte bere ordenamenduan sartu.

2014ko azaroan, europar legedi hori barne ordenamenduan sartzeko asmoz, Espainiak lege berri bat egin zuen, europar legearen zentzua aldatuz eta **beste estatuetaiko akumulazio edota batuketaren aplikazioa oztopatuz**. Horrela, Frantziako kondena bete ostean, 30 urteko topea 0-tik abiatzen da, eta honek praktikan, 30 urtetik gorako espetxe zigorrak betetzea suposatzen du, Europako legea urratuz.

Hori dela eta, europar komisioa azalpen eske egon da, eta guk nahi bezain aktibo aritu ez den arren, azalpenak eskatu dizkio espainiar estatuari gai honi buruz. Espainiak ez du ezer ere ez erantzun. Are eta gehiago; ez dio 2014ko azaroko espainiar legearen berri ere eman Europari.

Auzitegi Gorenean eta Entzutegi Nazionalean gai honekiko iritzi kontrajarri eta kritikoak daudela badakigu. Orain, konstituzionalaren erabakiaren zain gaude, eta hemen egon daitezkeen bateko zein besteko iritziak jakiteko zain; erantzuna gure presoen kontrakoa baldin bada Europara jotzeko zain, azken batean.

Bestalde, kondena ezberdinen akumulazio edo batuketaren gainean, erredentzioak (luditzeak) ere aplikatzen dira (ikasketak, aktibitateak....) ofizialki zehazturiko irteera datatik deskontatzen hasten direnak (horiek zigor kode zaharrarekin kondenatuak dauden kasuetan bakarrik aplikatzen dira). Beraz, zigor kode zaharrarekin daudenen irteera data etengabe aldatuz doa, lortzen dituzten erredentzioen arabera.

Guztira, **48 presori eragiten die** Frantziako kondenaren akumulazioaren gai honek, eta horietatik **zazpik kalean beharko lukete** dagoeneko. Presoen eskubidea beste behin urratzen dira. Kasu hauetan Europaren eskakizunen gaintik, Espainiak bete beharreko legea bete gabe jarraitzen baitu.

Cómputo de penas

Al hablar de la acumulación de condenas entre dos estados, tenemos que subrayar que la condena cumplida en Francia se incluiría dentro de la condena máxima de 30 años que fuera impuesta en el Estado español. Es lo que regula la Ley europea, ley que en el Estado español no se cumple.

En 2008 en la Unión Europea se aprobó y entró en vigor una Ley mediante la cual **las sentencias impuestas en distintos estados de la Unión Europea deben tener los mismos efectos en cualquiera de ellos**. Entre 2008 y 2014 el Estado español ni siquiera insertó esta ley en su ordenamiento jurídico interno.

En 2014, con la intención de incluirla en su ordenamiento interno, en el Estado español se aprobó una Ley, pero, en la práctica, dicha ley cambia el sentido de la norma europea y **pone trabas a la aplicación de la acumulación o unificación de penas cumplidas en otro estado**. Así pues, tras cumplir la pena impuesta en el Estado francés, en el Estado español se volvería a empezar de cero en el cómputo de los años de condena, también en los 30 de condena máxima, lo que, en la práctica, supondría obligar a cumplir más de 30 años de cárcel, vulnerando la legislación europea.

Ante esta situación, y aunque no tan activamente como hubiera sido deseable, la Comisión Europea ha pedido explicaciones al Estado español. Pero Madrid no ha dado respuesta; más aún, todavía no ha informado formalmente a Europa de la ley que aprobó en noviembre de 2014.

Además, sabemos que tanto en el Tribunal Supremo como en la Audiencia Nacional hay opiniones contrapuestas y críticas respecto a esta cuestión. Por ahora, estamos pendientes de la decisión del Tribunal Constitucional, ante el cual se han presentado ya los recursos, así como de conocer las opiniones que pudiera haber. Si el fallo es contrario, se recurrirá al Tribunal Europeo de Derechos Humanos.

Por otra parte, en el caso de personas condenadas con el anterior Código Penal español, sobre la acumulación o unificación se aplicarían redenciones (por estudios, actividades...), que se van descontando de la fecha oficial de salida de prisión. Por lo tanto, la fecha de salida de las personas condenadas con el anterior Código Penal va cambiando constantemente, en función de las redenciones que obtengan.

En total, son **48 las personas presas afectadas** por este tema. De ellas, **7 tendrían que estar ya en la calle**. Una vez más, se están vulnerando derechos de presas y presos vascos, y en esta ocasión, además, por encima de las exigencias europeas. El Estado español sigue sin cumplir una ley que está obligado a aplicar.



Giza eskubideak Derechos humanos



- ➔ **FRANCISCO MUJIKA GARMENDIA** Ordizia
- ➔ **IÑAKI BILBAO BEASKOETXEA** Lemoa
- ➔ **IÑAKI ETXEBERRIA MARTIN** Iruñea
- ➔ **JOSE JAVIER ZABALA ELOSEGI** Hernani
- ➔ **JOSE RAMON LOPEZ DE ABETXUKO** Gasteiz
- ➔ **JOSU ARKAUZ ARANA** Arrasate
- ➔ **SANTI ARROZPIDE SARASOLA** Lasarte

KALEAN BEHARKO LUKETE DEBERÍAN ESTAR LIBRES